

KULTURA BONUA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Sarrera.

Euskadiren ekonomia biziberritzeko ekintzak garatzeko Eusko Jaularitzak duen egitasmoaren baitan, eta aurreko kanpainan lorturiko emaitza onak ikusirik, Kultura Saila honek Kultura Bonua - Bono Kultura programa berritu nahi du, alegia, arte eta kultura ekoizpenaren merkatua bultzatzeko ekimena, hain zuzen 2010-2011 Gabonetako kanpainan, Euskadin, aipaturiko kultura-produktu horiek suspertzeari begira.

Helburu hori gogoan, euskarri ezberdinetako kultura-produktuen erosketa lagunduko du diruz Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, kultura-bonu batzuen bidez. Bonuak hautatutako finantza-entitatearen bitartez jarriko dira salgai, eta berorien bitartez erabiltzaileak bere diruaren balioa handitu ahal izango du, bai liburuak edo diskoak erosterakoan, bai museo batean bisita egiteko, antzerkiera edo kontzertu batera joateko.

Bonu bakoitzak 25 euroko kostua izango du, baina 40 euroko balioa emango dio erabiltzaileari liburuak edo musika-euskarriak erosteko, edo museo eta zuzeneko ikuskizunetan edo bestelako ekitaldietarako sarrerak erosteko. Behin bonuak eskuratu eta gero, 40 euroren balioko produktu eta zerbitzuak kontsumitu ahal izango ditu erabiltzaileak kanpainari atxikitako establezimendu-sarean. Saltokietatik finantza-entitatara bidaliko dira orduan berriz ere bonuak, eta han bonu bakoitza 40 euroren truke aldatu.

Galdera ohikoenak.

1. Zer da Kultura Bonua?

Kutxazainek ematen dituzten sarrera-txartelen moduko dokumentu bat, establezimendu bakar batean kultura-produktuetan 40 euro kontsumitzeko aukera ematen duena, nahiz eta erosleak txartela bera 25 euro ordaindu. Gainerako 15 euroak Eusko Jaurlaritzak jartzen ditu, lehiaketa bidez hautaturiko finantza-entitate baten bitartez.

2. Zer eros daiteke BONUAREKIN?

Liburuak (literatura, saiakera, poesia eta marrazkigintza...), musika: edozein euskarritan (CD, binilo, DVD...), zinea (DVDak), zuzeneko ikuskizunak (antzerkia, dantza, musika...), museoak: fidelitasun-txartelak (“...aren laguna”)

Programatik kanpo geratuko dira: papergintzako produktuak; testu-liburuak, liburu profesionalak eta ikasketetakoak; informatika eta elektronikako produktuak; joko eta bideojokoak.

3. Non eros daiteke bonua?

BIZKAIA: BBKren orotarako kutxazainak. GIPUZKOA: Servikutxan, KUTXA. ARABA: VITAL KUTXAren web orrialdean www.cajavital.es

4. Zenbat bonu eros daitezke?

Bonu bat txartel bakoitzeko, gehienez, ahalik eta eskatzaile gehienek eskaera asetuta ahal izateko.

5. Noiz eros daitezke?

2010eko abenduaren 13tik urtarrilaren 5ra arte, edota bonu-hornidura agortu arte.

6. Noiz arte onar ditzaket bonuen bidez egindako ordainketak nire establezimenduan?

Bonuen indarraldia 2010eko abenduaren 13tik 2011ko urtarrilaren 20ra artekoa izango da. Hortik aurrera ez da establezimenduetan onartuko.

7. Establezimendu batean baino gehiagotan erabil daiteke bonu bera?

Ez. Bonua establezimendu bakar batean kontsumitu behar da. Erosketa 40 eurotik beherakoa bada, ez da diferentzia esku-dirutan itzuliko. Erosketa 40 eurotik gorakoa bada, falta den alde hori diruz ordainduko da. Edonola ere, establezimenduaren esku egongo da komeni diren erraztasunak ematea erosleari, bonuaren balioa agortzeko, betiere iraungitzeko epea onartuz gero.

8. Neuk, establezimendu moduan, noiz alda ditzaket bonuak diru truke?

Trukea pertsonalki egin behar da hautatutako finantza-entitatearen edozein sukurtsaletan. Jasotako bonuak entregatu ondoren, horien balioa kalkulatu da: bonu kopurua bider 40 euro/bakoitzeko. Emaiz hori titulartzat establezimendua bera edo haren pertsona ordezkaria duen hautatutako entitatearen kontu korrontean sartuko da. Inola ere ez da bonuen truke esku-dirurik emango.

Trukea astean behin egin ahal izango da, epe muga lehen adierazitako 2011ko urtarrilaren 31a dela.

Iruzurrik egon ez dadin, trukea egiterakoan establezimenduari eskuratu zaion programaren identifikazio-txartela erakutsi beharko da.

Atxikitako enpresaren konpromisoak.

1

Hitzarmenari atxikitzen zaion enpresak konpromisoa hartuko du publizitate-materialak jasotzeko, bai eta establezimenduan, ongi ikusteko tokian toki batean, jartzeko.

2

Bonuak kultura-produktuak erosteko ordaintzat onartuko dira: liburuak, diskoak, CDak, zine DVDak, “museoaren laguna” txartela, zuzeneko ikuskizunetarako sarrerak, dantza, antzerkia, musika.

3

Programatik kanpo eratuko dira eta, beraz, ezingo dira bono bidez erosi, honako hauek: papergintzako produktuak; testu-liburuak, liburu profesionalak eta ikasketetakoak; informatika eta elektronikako produktuak; joko eta bideojokoak...

4

Erosketaren balioaren eta bonuaren arteko diferentzia berdintzeko, ez da esku-dirutan itzulketarik egingo.

5

Atxikitako establezimenduek galdera-sorta labur baten hamar ale jarriko dituzte leku ageri batean, hala nahi duten bezeroek bete dezaten. Kanpainaren bukaeran, galdera-sortak adierazitako helbidera bidaliko dira.

6

Prozesuak irauten duen bitartean, atxikitako establezimenduen lagin batek telefono-dei bat jasoko du, kanpaina zer moduz doan egiaztatu ahal izateko.

Atxikitzeke epea eta modua.

2010eko azaroaren 17tik
abenduaren 3ra.

Atxikitzeke inprimakia bete eta honako toki hauetan entregatu behar da:
Interneten:

www.kultura.ejgv.euskadi.net

E-mail bidez:

bonokultura@ej-gv.es

Postaz:

Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza
Donostia kalea z/g
Vitoria-Gasteiz 01010.

Data garrantzitsuak.

Atxikitzeke epea:

2010eko azaroaren 17tik abenduaren 3ra.

“KULTURA BONUA” hitzarmenaren
indarraldia:

2010eko abenduaren 13tik 2011ko urtarrilaren 31ra.

Bonuak hautatutako

finantza-entitatean erosteko epea:

2010eko abenduaren 13tik 2011ko urtarrilaren 5era.

Bonuaren indarraldia:

2010eko abenduaren 13tik 2011ko urtarrilaren 20ra.

Establezimenduak bonuak hautatutako finantza-entitatean
trukatzeko epea:

Trukea asteen behin egin ahal izango da, 2010ko abenduaren 14tik
2011ko urtarrilaren 31ra bitartean.

Argibide telefonoa

902 101 447

Laguntza ordutegia: 9:30-13:30 eta 16:00-19:00

bonokultura@ej-gv.es